



Ander Goikoetxea
eta Ibai Martiarena
Urnieta Kirol
Elkarteko kideak

Kalejira koloretsua eta jendetsua Andoaingo kaleetan barrena

Jai giroan egin zuten berdintasunaren aldeko kalejira, aurreko larunbatean.

Aurtengoarekin zortzi izendapen gehiago dira hizki larriz nabarmendu dituztenak. Zortzi pertsona edota talde gutxiago, beraz, itzalean geratu direnak. Goikoplazako ekitaldian nabarmendu zutenez, “ez dira itzalpean aritutako denak, baina bagoaz urratsez urrats denak argitara ateratzen. Ateratzen kalera, plazara, herriko plaza nagusira, leku honetako herritarrak ere, izan gizon, izan emakume, eskubide beteko herritar izan daitezten. Horrela desagertaraziko ditugu gutxika ikusten ez diren mugak”. Geroz eta gehiago dira beraz, gizarte, kultura edota kirol mailako herrikideei egindako aitor-tzak.

Aurreko larunbat eguerdikoa aste osoan zehar luzatu



“Martxoak 8 emakume” kalejira ostean ateratako argazkia, zeinean aurtengo omenduak agertzen diren.

den egitarauaren ekitaldi nagusia izan zela esan daiteke. Ez, noski, bakarra. Ekitaldi guztietan parte hartze handia izan da. Bi aipatzearren, “Andoaingo kaleak denontzat ber-

din (=)” erakusketaren irekiera ekitaldia edota hiru belaunaldi lotu zuten “Emakumeak musikan” kontzertua.

Martxoaren 8ari buruzko zikloa ostiral honetan amaituko

da, Beatriz Carvajal aktore ezagunaren “A vueltas con la vida” antzezlanarekin. Baste-ron izango da, 21:30ean hasi-ta.

[ANDOAIN, GEHIGARRI BEREZIA]

Ongi etorria Korrikari



Datorren astean Korrika as- tea izango da, Korrika txi-kiarekin eta Korrikarekin berarekin. Aurreko ostirale- an, euskararen aldeko giroa berotzeko, tailerrak antolatu zituzten.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

PSE-EEren hautagaiak



Maidar Lainez buru duen zer- renda aurkeztu zuen Ando- aingo PSE-EE alderdiak.

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

Urnietako Udalaren adierazpena

Urnietako Udal adierazpenean borondate eta konpromiso argiak hartu zituzten: “2015eko martxoak 8 dituen honetan, emakumearen nazioarteko eguna izanda, emakume eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko urrats

sendoak ematen jarraitzeko borondatea berresten dugu.

Baina, horrez gain, batez ere konpromisoa hartzeko eguna da. Horregatik, gure ustea ber- retsi nahi dugu: irmoki jarraitu behar dugu ekintzak bultza- tzen, emakumeen eta gizonen

artean berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko behar diren beste ekintza bultzatzen, horrela lagunduko baitugu gi- zarte solidario eta justuago bat eraikitzen, bizitza ekonomiaren erdigunean jarriko duena, eta ez alderantziz”.



Solasaldia Andoainen

Urigainen “Komunikabideak eta bizikidetz” izenburupe- an, ostegun honetan.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]



Parekidetasunaren aldeko kalejira Andoainen



Seiasle taldeari omenaldia, piano jaialdian



“Emakumeak musikan” emanaldia



Urki taldeko dantzari txikiak



Eraso sexista salatze-ko elkarretaratzea



Martxoak 8ko ekitaldi instituzionala Urnietan



Badator korrika Urnietara



Abesbatza gaztearen emanaldia

- Bideoak, Aiurriko albisteen eduki osagarriak.
- Dagoeneko 1300 bideotik gora ikusgai daude.
- Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak. Eta irudiak.





FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Europarako bidea

Europar Batasunerako hauteskundeak ematen direnean, euskaldunoi, gurekin zerikusirik ez duten hauteskundeak bailiran jokatzten dugu. Urrun ikusten dugu parlamentu hura eta interes gutxi edo oso gutxi pizten dute gugan, eta emaitzetan abstentzio handia islatzen da.

Denbora aurrera, ordea, garbiago ikusten ari gara ekonomian nahiz gizarte alorrean, hots, giza eskubideetan, ingurugiroan, etab. Europak eragin handiagoa duela. Onerako eta kalterako. Gogora dezagun Parot dotrinarekin gertatutakoa: Estrasburgoko Auzitegiak bertan behera utzi zuen Espainiako Estatuko epaileen erabakia. Hurbileko erakundeek erantzuten ez dutenean, injustizia dagoenean eta hurbileko erakundeek entzun ere egiten ez dutenean, hor dugu Europarako bidea. Eta, hain zuzen, egun hauetan Europarako bidea egin duen oroimen historikoari heldu nahi diot.

Oroimen Historikoaren ibilbidea, 1936ko Gerra Zibiletik 1977 bitarteko krimenak, fusilamentuak, gorpuen bidebakterratzeak, desagertzeak, torturak, espetxeratzeak eta krimen ororen memoria, justizia eta erreparazioa lortu nahi duen oroimen historikoa aurrera doa. Azken urteotan, lan bikaina egin da han-hemenka hainbat talde memorialista elkartu eta elkar lanean aritzeko. Garai hartako zenbait erantzuleen aurpegiak ere azaleratu dira, hainbat torturazaila eta zenbait fusilamenduren erantzuleak esaterako. Espainiako Gobernuak ez du deus jakin nahi izan, eta, hori dela eta, justizia unibertsalean oinarrituz Argentinarako bidea hartu zuen. Han izan ginen era askotako biktimak Servini Epailearen aurrean deklaratzeko, hemengoek ez baitzuten ezertxo ere jakin nahi. Argentinako bideak aurrera darrai, eta gero eta gehiago dira epailearen aurrean edota kontsulatueta deklaratzeko ari direnak, hemengoak nahiz Espainiakoak.

Martxoan 3an 39 urte bete dira Gasteizko basakeriaren ondorioz bost langile hil eta hainbat zauritu gertatu zirenetik. Eta, han ibili zirenek lekukoa hartu eta urtez urte gogorarazi digute Gasteizen gertatutakoaren tragedia. Garbi dute zeintzuk diren

erantzuleak, besteak beste, Martin Villa, oraindik bizirik dagoena. Hemen ez dute erantzunik izan eta beste zenbait talde memorialistekin batera Europarako bidea hartu eta han izan dira. Dirudieenez, IU-EBko europarlamentarioak kudeatu du bidaia eta elkarriketa. Ezker Batukoaz gain, ordea, beste zenbait alderdietako hautatuak ere, hala nola, EAJ, Bildu, Podemos eta Europako beste zenbait taldek ere ekimena onartu dute. 1936ko gerran Europak izan zuen zerikusia garai hartako diktadoreen laguntza izan baitzuen Franco jeneralak. Eta hau guztia entzun eta irakurri ondoren, milioika galdera: ibilbide horrek, hemengoak, Argentinakoak nahiz Europakoak izango al du eraginik?. Hori galdegiten didatenean erantzun berdina ematen dut: Bizitzan utopia pittin bat eta giza kontzientzia apur bat beharrezko ikusten ditut gure garapena, pertsona gisa, osoa izan dadin.

MARTXOAREN 8A

Martxoan gaudenez, eta 8a hain egun seinalatua izanik, Aiurriko nire zutabe honetatik, zorionak emakumeei hainbat lorpen lortu eta borroka bidean dihardutelako. Komunikabideek gune luze zabala eskaini diote gaiari, eta, egia esan, zenbait emakumeren testigantza zintzoak ere irakurri ahal izan ditugu. Emakumezkoen eguna, bai, baina, nire irudiko gizonetzokok ere badugu zer ikasi hainbeste aipatzen den genero berdintasun hori lortu ahal izateko. Eta oroimenaz eta emakumeen egunari buruz ari naizenez, hil berria den emakume bat ekarri nahi nuke oroimenera: Urnietako panaderiko Maria Luisa: In Memoriam.

Ni txikia nintzela bere nagusiago zen jakina. Panaderiko goian bizi ginen, alokairuan. Garai hartan Panaderia instituzio bat zen: *Panadeia*, denda, telefonoa, dena zegoen han. Telefonotik deitzen zizutela: han zeuden panaderiko Maria Luisa eta deiadar egiteko: "Margarita telefonora". Eta emakumearen egunaren lotuta esan nahi dut garai hartan emakume gisa lan asko egin zutela Urnietaren alde. Horregatik, Maria Luisa, niretzat *Panadeiko Maria Luisa*: In Memoriam!!!

“Berdintasunak gizarte bezala aurrera joaten laguntzen digu”

Udala, berdintasun eraginkorra lortzeko prest

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Urnietako Udalak Udal adierazpena egin zuen. Hauex da edukia, bere osotasunean: “Berdintasunak gizarte bezala aurrera joaten laguntzen digu, pertsonen autonomia eta duintasuna hobetzen laguntzen du, errespetua sustatzen du, eta demokrazian zein justizian sakonarazten digu. Horregatik guztiatik, 2015eko martxoak 8 dituen honetan, emakumearen nazioarteko eguna izanda, emakume eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko urrats sendoak ematen jarraitzeko borondatea berresten dugu.

Baina, horrez gain, batez ere konpromisoa hartzeko eguna da. Horregatik, gure ustea berrets nahi dugu: irmoki jarraitu behar dugu ekintzak bultzatzen, emakumeen eta gizonen artean berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko behar



Almudena Salas eta Ane Igarategi herritarrek irakurri zuten manifestua.

diren beste ekintza bultzatzen, horrela lagunduko baitugu gizarte solidario eta justuago bat eraikitzen, bizitza ekonomia-aren erdigunean jarriko duena, eta ez alderantziz.

Urnietako Udalak emakumeen elkarleen mugimenduak, emakumeen eskubideen aldeko borroka zein borroka femi-

nista indartzeko eta parekidetasunaren eta berdintasunaren aldeko mugimendu oro indartzeko konpromisoa adierazten dute, eta herritarrei dei egiten diete emakumeen nazioarteko egunaren inguruan antolatuta dauden ekitaldietan parte har dezaten”.

Bideoa: www.aiurri.com

Musika eskolako hogeik ikaslek parte hartu dute azken edizioan

Andoaingo piano jaialdian



Piano jaialdiaren hamargarren edizioan parte hartu duten musikariak.

Lourdes Iriondo musika eskolako hogeik piano jotzaile gaztek Andoaingo X. Piano jaialdian parte hartu zuten otsaileko azken asteburuan. Ohi bezala, parte hartzeagatik diploma eta domina bana ematen zaio partaide bakoitzari. Urnietarrek aurten urrezko 6, zilarrezko 10 eta

brontzezko 4 lortu dituzte. Ikasleen prestaketaz arduratu dira Maribi Arruti eta Ana B. Garcia pianoko irakasleak. Garcia, gainera, aurten epaimahaikide lanetan aritu da.

Partaideak hauexek dira: Ane Taracena, Claudia Sologaistua, Imanol Sologaistua, Fátima

Abla, Ane Garcarena, Oihan Etxeberria, Ekain Etxeberria, Nahiane González, Uxue Parada, Eider Medina, Eider Morales, Maitane Arretxe, Maria Muro, Ane Otaegi, Ane Pagola, Gariñe Serrano, Iñigo Pascual, Eva Taracena, Ane Donavera, Iraia Moreno.

San Silbestrean lortutako dirua, Biodonostiarentzat



Super H taldeko kideak abenduaren 31ko San Silbestre krosean.

“2014ko Urnietako San Silbestrean bildu zen dirua, Biodonostian abian jarriko den haur minbiziari buruzko ikerketa baterako eman dugu”, horixe adierazi zuen aurreko astean Super H taldeak. Diru ekarpena egitera hara bertara joan ziren eta haur minbiziaren ikerkuntza unitatea gidatzen duen ikerlariekin egoteko aukera izan zuten: “Biodonostiako hainbat ikerlarik berriak egiten dutenaren berri eman ziguten eta ikerkuntza bultzatzearen garrantziaz aritu ginen. Gipuzkoa bertan

azken generazioko ekipamendua dugu, ideia eta ikerlari hobeak, baina denon laguntza ezinbestekoa da bertako ikerkuntza bultzatu eta garatzeko”. Super H taldeak Biodonostia taldearekin elkarlanean jarraitzeko asmoa agertu du.

MARTXOAREN 28AN FESTA

Super H taldeak bestalde haur jaialdia antolatu du Urnietako Mendi lasterketaren bezperarako. Haur lasterketa, tailerrak, puzgarriak. Informazioa, Agenda atalean.

Xabier Lete hizpide

“Elkarbizitzaren zoru etikoa eraikitzen” jardunaldien baitan, martxoaren 23an mahai-ingurua izango da Leikaion Felipe Juaristi, Inazio

Mujika eta Jon Sarasuaren eskutik. Iluntzeko 19:30ean hasiko da “Xabier Lete, erreka zikinen ur garbien bila” izenburupean.

Aisialdia Aste Santuan

ASTE SANTUAREN ATARIKOA

Martxoak 30, astelehena

10:00-13:00:

Joko-jolasen ginkana: kooperatiboak, sentsibilizatzeko

Martxoak 31, asteleartea

10:00-18:00:

Irteera bizikletan.

Apirilak 1, asteazkena

10:00-13:00:

Eskulan tailerak: kamixetak, telefonoarentzat zorroak, etab.

PAZKO ASTEA

Apirilak 7, 8 eta 9

Arantzibia ludoteka

11:00-13:00:

Tailerrak: kristalezko bola, mister potato... eta hainbat joku: lurra-ura, zapi jolasa, ginkana globoekin...

17:30-19:00:

Tailerra: berunarekin ispi-luan margotu edo grabazioa eta jokuak: Baso bilketa, baloi eseria, zapi jolasa...

Buruntzaldeako LAB

Larunbat honetan, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deituta, manifestazioa deitu dute Bilboko kaleetan, besteak beste, “Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiek aukera berdintasunean oinarritutako bizi baldintza duinak izan ditzagun” aldarrikatzeko.

LAB sindikatuak deialdiarekin bat egin du: “Burun-

tzaldeako herritarrei dei egiten diegu Bilboko Sagrado corazonetik abiatuta, arratsaldeko 17:00etan burutuko den manifestaldian parte hartzera”.

Eskualdetik autobusa 15:00etan irtengo da Hernaniko Atsegindegitik. Izena eman nahi duenak bi aukera ditu: Hernaniko Garin tabernan edota LABeko egoitzara deituta: 943 33 60 62.

Hamasei zuhaitz landatu zituzten Zuhaitzaren egunean

Zuhaitz berriak Errekalden



Ikasleek parte hartu zuten zuhaitz berrien landaketan.

Egape ikastolako eta Presentacion de Maria ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako laurogei ikaslek hamasei zuhaitz landatu zituzten Errekalde kalean, asteazken

goizean. Udaletik jakinarazi dutenez, “zuhaitz berriak sartu ahal izateko, aurrez landatuta zeuden tiloak kendu ziren; izan ere, gaixorik zeuden. Ikasleek Prunus yedoensis ize-

neko gereziando asiarra landatu zuten”.

Zuhaitz mota hori ohikoa da Euskal Herriko lorategi askotan eta udaberrian lore zuria ematen du.

Zuri esker

“Gizarte Zerbitzuei esker, nire arreba izarok lana du desgaitasuna duten pertsonen alde egiten duen tailer batean.”

Jon, 33 urte

Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
Zure eskubidea da

#ZureEskubidea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus

MARTXOAREN 18AN KORRIKA TXIKIA ETA 21EAN KORRIKA

Ongi etorria Korrikari

Euskal Herrian Korrika da euskararen alde egiten den ekimen indartsuenetakoa. Martxoaren 21ean igaroko da herritik eta egun hori girotze aldera Korrika batzordea lan eta lan ari da.

Aurreko ostiralean jolasak antolatu zituzten, eta datorren asteazkenean ikastetxeen parte hartzearekin Korrika txikia antolatuko dute.

San Juan plaza kolore eta musikaz alaitu zuten urnietarrek ostiral arratsaldean. Korrika badatorrela iragartzeko ospakizuna izan zen, eta hasteko, hurrek izan zuten protagonismoa plazan. Poxta Zahar taldeak antolatuta, haur jolasak egin zituzten. Guztietan nabarmena eskuz margotutako murala izan zen; eskuak pinturaz zikindu eta "Urnietak euskahaldun" zioen murala margotu baitzuten. Haur guztiek gozatu egin zuten eta emaitza ikusgarria lortu zuten.

Horren ostean, mintzodromoa egitekotan ziren, baina mintzalagun gutxi gerturatu zirenez, zuzenean taloa jatera animatu ziren bertaratutakoak. Aize Otaño Urnietak eta As-tigarragako Korrika arduradunak



Korrika Txikia datorren asteazkenean antolatuko dute Urnietan.

nak azaldu zenez, postuak arrakasta handia izan zuen eta 50 talotik gora egin zituzten. Ondoren, Itzartu eta 2-Shock taldeek girotu zuten plaza. "Urnietarrak motorrak berotzen hasteko balio izan du festak", adierazi zuen Aizek.

KORRIKA TXIKIA DATORREN ASTEAZKENEAN

Datorren asteazkenean, martxoaren 18an, Korrika txikia egingo dute Egape, Salesiarrak eta Presentación de Maria ikastetxeetako ikasle zein irakasleek. 11:00etan abiatuko dira

Egapeetik. Presentación de Maria ikastetxe aldera joango dira eta San Juan plaza igaroz, Salesiarrak helduko dira. Ibilbideari amaiera emateko, plazara itzuliko dira berriro. Bertan, Udalak aurkezpena egin eta ikastetxeetako hurrek bertsoak kantatuko dituzte. Amaitzeko, Korrikaren aurtengo kantuararekin dantza egingo dute ikasle guztiek elkarrekin.

KORRIKA, HILAREN 21EAN URNIETAN BARRENA

Martxoaren 21ean igaroko da Korrika Urnietatik. Larunbat goizean pasako da, goizeko 09:53 inguruan. Andoaindik etorriko dira korrikalariak, eta Ergoien auzotik barrena, San Juan plazan itzulia egin eta Aranzubi kalea zeharkatuz,

Martxoaren 21ean igaroko da Korrika Urnietan barrena

Idiazabal kalera joango dira. Herria igaro eta Hernanirako bidea hartuko dute.

SALESIARREN OHARRA

"Martxoaren 21ean, motorrak berotzeko, goizeko 08:30etik aurrera Presentación de Maria Ikastetxeak eta Salesiar ikastetxeak Geltoki Kalean gure Ikastetxe aurrean dagoen plazatxoan gosaria eta hainbat tailer antolatuko ditugu eta, ondoren, erositako kilometroa korrituko dugu. Izen emateko, idazkaritzatik pasa zaitezte. Gure erronka 50 euskahaldun izatera iristea da. Anima zaitez".

HURRENGO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA

**URNIETAN BIZITZEKO
ERA BERRI BAT
KALITATE EZINHOBEA
PREZIO ONENEAN**



MAÑERU BIZIGUNEA

**DUPLEXAK
PLANTA BAXUAK
TERRAZA ZORAGARRIEKIN
BISTA EZINHOBEEK
MATERIAL BIKAINAK**

**GARAJE BIKOITZ
ETA BANAKOAK
TRASTELEKUEKIN**

**www.altunayuria.com
www.inmoloiola.com**

**2 EDO 3 GELAKO
ETXEBIZITZAK GARAJEAREKIN
190.000€-tik hasita**

Sustatzailea:
inmo **ioiola**

Eraikitzaila:
ALTUNA Y URÍA S.A.

**ZATOZ ETA
INFORMA ZAITEZ!
606 957 532**

**2 EDO 3 GELAKO
ETXEBIZITZAK
GARAJEAREKIN**





“Martxoak 8 emakume” kalejira, urtero ikusgarri

GOIKOPLAZAK EHUNKA HERRIKIDE BEREKANATU ZITUEN AURREKO LARUNBATEAN, EMAKUMEAREN ALDEKO KALEJIRAN. BELAUNALDI EZBERDINETAKO HERRIKIDEAK HURBILDU ZIREN KALEJIRA IKUSGARRIAREN AMAIERA IKUSTERA. EGURALDIA LAGUN, EDERRA IZAN ZEN.



Alberto Agirre abesbatzako hainbat kide Santa Krutz elizaren kanpoaldean, lekukoa hartzeko prest.

Jone Larrañaga aurkezleak kalejira amaierako bilkuraren zentzua ezin argiago azaldu zuen: “400 urteko historia duen eskubide beteko herri honetako plaza nagusian bildu gara, eskubide gutxi eta are eta plaza gutxiago izan duten emakumeak oroitzeko, izendatzeko eta haien izena herri honetako historian idazteko”. Mendeurrena gogoan, aurtin inoiz baino indar gehiago hartu du au-

rreko urteetan ozen aldarrikatutakoak: “Beste behin ere zortzi emakumek bildu gaituzte hemen, bizitzan zehar gutxitan izango duten errekonozimendua adierazteko. Zortzi dira, laurogei edota zortzirehun emakumek itzalpean egiten dutena ordezkatzera datozenak. Historiako emakume guztiak ordezkatzeko dituzte gaurko egunean”. Urtez urte hainbat emakumeri gorazarre egiten diote;



Elena Lertxundi lekukoa hartu zuen, Goikoplazarako bidean. Senideak eta lagunak gertu izan zituen.

2015eko edizioiko protagonistak honakoak izan dira: Ixiar Oiartzabal, Elena Lertxundi, Maria Ormazabal, Maria Erkizia, Anbroxi Ponce, Rosario Guiu, Axeri dantza elkarte, Rosa Luena, Eva Pelaez, Alberto Agirre abesbatza, Galdardi haurtzaindegiko hezitzaileak eta Andoaingo AEK euskaltegia.

Aurtengoarekin zortzi izendapen gehiago dira hizki larriz nabarmendu

dituztenak, zortzi pertsona edota talde gutxiago itzalean geratu direnak: “Ez dira itzalpean aritutako denak, baina bagoaz urratsez urrats denak argitara ateratzen. Ateratzen kalera, plazara, herriko plaza nagusira, leku honetako herritarrak ere, izan gizon, izan emakume, eskubide beteko herritar izan daitezten. Horrela desagertaraziko ditugu gutxika ikusten ez diren mugak”.



ANDOAIN

2015eko martxoa

AZKEN HITZORDUA

“A vueltas con la vida” antzezlan Basteron

“Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak” hitzaldia eta “Philomena” filmaren emanaldiaren ondoren, ostiral honetan antzerkiarekin amaiera emango diote aurtengo egitarauari.

“A vueltas con la vida” antzezlan Mari Carmen fizikozko pertsonaiaren bizimoduaren isla da. Sinopsiaren arabera, familia apala, senar krudela eta izugarritzko barkadadea izan dira bere lagun bakarrak, “liburuei esker askatasunaren balioa ezagutaraziko dioten lau emakume heroi ezagutuko dituen arte: Marilyn Monroe, Chavela Vargas, Santa Teresa de Jesús eta Cleopatra”. Ikuslegoarengan eragina izaten duen antzezlan da. Iluntasunetik argira doa, irribarrez eta umorez beterikoa.

Aktore lanetan pertsonaia bakarra ageri da: Espainiako antzerki eta telebista munduan eskarmentu handikoa den Beatriz Carvajal aktorea. “Lapiz y papel” edota “Un, dos, tres” TVEko saio ezagunetan aritu zen, eta baita hainbat filmetan ere.

Martxoak 13, ostirala. Gaztelaniaz. Bastero. 21:30. 15 euro.

Eguzkia ere kalejirarekin bat

EGURALDI ONA KALEJIRA OSPAKIZUN BILAKATZEKO XEDEAN EZINBESTEKO LAGUNTZAILE IZAN ZEN. ORAIN ARTEKO EDIZIO GUZTIAK EGUZKIPEAN IGARO DIRA.



Axeri dantzako kideek Alberto Agirre abesbatzari lekukoa eman eta gero dantza saioa eskaini zuten Santa Krutz elizaren aurrealdean.



Andoaingo AEK euskaltegiko irakasleak lekukoa hartzen bigarrenak izan ziren.



2015eko kalejira Galardi haurreskolako hezitzaileek abiatu zuten, Bastero plazatik.



Ikasleek ekitaldian parte hartu zuen.



Kantuan, bertsotan,... Ikasleen parte hartzea aktiboa izan zen.



Juantxo Arregi, Xato Irazu eta Aitziber Ugartemendia Axe-ri dantza taldeko ordezkariak kalejiran.

Juncal Corrochano

“Hamabost urteotan ikusi da Axe-ri dantzak irabazi egin duela”

Axe-ri dantza Andoaingo bertako dantza da, eta 2000. urtean soilik gizonetzkoena zen tradizio hartan emakumezkoei parte hartzeko aukera eskaini zitzaizen. Bidegile horietako bat Juncal Corrochano izan zen, “poz handia sentitu dut gaur, hamabost urte atzera pauso hori emandako emakumezko eta gizonetzkoekin gogoratzegatik. Horrelako jai giroarekin, gainera, izugarria izan da. Erabaki hura hartu zen orduan, eta hamabost urteotan ikusi da Axe-ri dantzak irabazi egin duela. Emakumeen parte hartzea ziurtatu denetik parte hartzeak gora egin du, Sanjuanetan edota Puska biltzean nabarmena da hori”.

Eva Pelaez, Rosa Luena

“Lasterketetan eskubide berdinak izateko borrokatu egiten dugu”

Eskarmentu handiko korrikalariak dira biak. Pelaezek lasterketetan parte hartzeaz gain Ubitarten haurren prestatzaile lanetan aritzen da. Luenak Behobia-Donostia gehien egin dituen emakumezkoa da. Pozarren zeuden biak, ekitaldia amaitu eta gero egindako adierazpenak ikusita: “Oso polita izan da, guretzat lehen aldia. Ez baikeuen ospakizuna eza gutzen. Urduri egon gara, ez gaudelako horrelakoetara ohitura”. Berdintasunaren alde egiteko kementsu agertu ziren, “guk lasterketetan eskubide berdinak izateko borrokatu egiten dugu. Eskubide berdinak nahi ditugu gizonetzko eta emakumezkoentzat”.



Eva Pelaez eta Rosa Luena korrikalariak, pozarren jasotako aitortzarekin.



Anbroxi Ponce, Maria Erkizia, eta Rosario Guiu Laborde lantegian lan egindako emakumeak omendu zituzten. Baita Maria Ormazabal ere.



Ixiar Oiartzabal Basterotik Goikopazarako bidean, kalejiraren lekukoa eramaten.

Ixiar Oiartzabal, azken esne saltzailea

Baserriaren esparruan aurtengo izendapena Oiartzabalak jaso zuen. Ezezkoa izan zen bere aurreneko erreakzioa: “Diskrezioa nahi izaten dut, eta ez nuen horrela nabarmentzerik nahi. Hala ere, bi alabek segituan onartzeko eskatu zidaten, zerbaitengatik izendatu nindutela eta errespetua merezi zutela antolatzaile eta izendatzaileek”. Elizondo baserrian (Goiburu auzoa) jaio bazen ere, Ixiar Garagorri baserriko seme Luis Mari Otañorekin ezkondu eta bertara joan zen bizitzera orain 32 urte. Harrezkero, baserri lanetan jardun dute biek. Andoaingen esnea kalean partitzen duten bakarrak dira, egun. “Zazpi behi dauzkagu ukuiluan, eta egunean 60 bat litro ekoizten dira. Pasata daude garai bateko kontuak; horgei behi ere eduki genituen!”.

Astean hiru egunetan jaisten dira herrira. “Betiko bezeroengana jotzen dugun arren, beti ateratzen zaizu bidera baten bat esnea eskatuz. Bezeroak oso konforme egoten dira, estimatzen baitute esnea baserritik zuzenean etxera ekartzea”. Andoaingo herri-askok, Ixiar, marmitarekin hara eta hona ibiltzen den emakume gisa identifikatu dute batik bat. Baserri-ira lotuta bizi dela aitortu du Ixiarrek.

“Kalean, gutxitan ikusiko naute, ez bada esne partiketan. Apenas ateratzen naizen baserriko bizimodu horretatik”

“Kalean, gutxitan ikusiko naute, ez bada esne partiketan. Apenas ateratzen naiz baserriko bizimodu horretatik”.

Etsipenez baserritik nekez bizi daitekeela adierazi du, “ez dago etorkizunik. Esnearen prezioa ez da aldatu azken 25 urteetan; pentsua eta bestelako gastuak, berriz, ederki igo dira. Baserriko generoa erruz ekartzen da kanpotik eta horrekin ezin da lehiatu. Baserriari irtenbidea ematekotan, ekoizpen handiari begirako negutegiak jarri behar dira”.

Bi alaba ditu, eta horiei txikitatik transmititu die baserriaren egoera beltza, eta nola edo hala, bizitza aurrera ateratzeko gogor egin behar dela. “Kostata, baina biak ere saiatuak izan dira, eta ingenieritzako ikasketak eginak dauzkate”. Edozein guraso harro egoteko moduko arrazoiak eman dizkiote Ixiarri.

Kalejira amaituta gustura agertu zen, “ondo joan da, uste baino hobeto. Oso gustura ibili naiz”.



Ixiar Oiartzabal Ander Nabarte ilobarekin, Garagorri baserriaren atarian.



Erakusketa Kaleak denontzat berdin (=)

ERAKUSKETAREN ATEAK OSTIRALA BITARTE ZABALIK DAUDE. ERAKUSKETA LAU IRIZPIDEREN ARABERA ANTOLATU DUTE: SEGURTASUNA, EMAKUMEAREN IKUSGARritasuna, EKIPAMENDUAK ETA MUGIKORTASUNA.

Aurreko ostiralean martxoaren 8ari buruzko egitarauaren eta erakusketaren irekiera ekitaldia egin zuten Basteroko erakusketa gelan, parte hartze handiarekin. Ana Carrere alkateak erakusketaren nondik norakoa deskribatu zuen. Herriko ikasteetxetako ikasleek Andoaingo hirigintza generoaren ikuspegitik aztertu dutela adierazi zuen, "panelen bidez argi ikusten da hirigintza prozesuak, historian zehar, gizonaren bizimodura egokitu direla; emakumeen bizipenak eta ikuspegiak kontutan hartu gabe. Gure helburua errealitate hori eraldatzea litzateke".

KARTEL LEHIAKETAN NABARMENDUTAKOAK
Milagros Lavado izan da aurtengo kartelaren egile. Marrazkigintza eta eskulargintza ditu zaletasun, eta erizaina da ogibidez: "Kateak hausteko borroka egin beharra dago. Emakumea ereduarrria izan da berdintasunareko borrokan, nahiz eta asko sufritu".


Naiara Lasartek eta **Juanan Lazkanok** elkarrekin osatu duten kartelak aipamen berezia jaso zuen. Hitzez josita agertzen da kartela. Lasartek adierazi zuenez, "aniztasunaren mezua zabaltu nahi genuen. Alegia, emakumeak, berak nahi duen bezalakoa izateko daukan eskubidea aldarrikatzea. Izan ere, estereotipoak inposatzen zaizkigu oraindik; nolako itxura, izakera... eduki behar duten agintzen zaie emakumei".



Martxoak 8 egitarauaren aurkezpen ekitaldia erakusketaren irekieran egin zuten.



Milagros Lavado de la Revilla irabazlea.



Kartel lehiaketan aipamen berezia jaso zuten Juanan Lazkanok eta Naiara Lasartek.

Kontzertua Hiru belaunaldi elkarrekin

"Emakumeak Musikan" izeneko emanaldiak atzoko, gaurko eta etorkizuneko musikariak bildu zituen ekitaldi berean. Ainhoa Elizondo, Myriam Ulanga, Aran Mujika eta Toñi Hurtado musikariek euskal tradizioan itzal handia duten kantuen bertsio landuak eskaini zituzten. Musika-aren osagarri bilakatu ziren Sanchez, Santa Krutz eta Zozaia kantarien ahotsak eta Beraza eta Sagasetaren dantzarien saioak. Saio osoan zehar bideo pantailan Pilar Txopeitia, Begoña Tolaretxipi, Virginia Ulanga, Maite Oiartzun, Saioa Lopez eta Klaudia Alduncinen lekukotzak eskaini zituzten.

Martxoak 8 Andoain argazkiak eta bideoak ikusgai



Myriam Ulanga, Pilar Txopeitia, Begoña Tolaretxipi, Ainhoa Elizondo, Virginia Ulanga, Maite Oiartzun, Ariane Kamio, Izaskun Beraza eta Maite Sagaseta. Behean: Saioa Lopez, Klaudia Alduncin, Itxaso Sanchez, Sara Santa Krutz, Toñi Hurtado, Aran Mujika eta Sara Zozaia.

“Elkarbizitzaren zoru etikoa eraikitzen” zikloa

Mahai-ingurua Urigainen

Ganbo Iturri kultur elkarteak jardunaldiak antolatu ditu Buntzaldean. Ostegun honetan Andoaingo Urigainen mahai-ingurua antolatuko dute, “Komunikabideak eta bizikidetza”

izenburuean. Bertan hizlari arituko dira Olatz Iartza, Gor-ka Landaburu, Pablo Muñoz, Luis R. Aizpeolea eta Martxelo Otamendi. Ekitaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

URNIETAN HILAREN 23AN

“Elkarbizitzaren zoru etikoa eraikitzen” zikloaren baitan Urnietan Xabier Lete gogoan izango dute. Martxoaren 23an izango da, Lekaion.

Andoaingo taldeak bi ekitaldi antolatu ditu Basteron

‘Gure esku dago’ ekimenak

Gure esku dago herri ekimenak dokumentalaren emankizuna eta mahai-ingurua antolatu ditu. Ostiral honetan “Jostunak” eskainiko dute, eta hilaren 24an solasaldia Katalunia-Euskal Herria hizpide hartuta.

JOSTUNAK DOKUMENTALA

Martxoak 13, ostirala. 18:30. Dokumentalean pertsona ugari hartzen du parte eta dinamikaren inguruan hitz egiten dute. Euskaraz izango da, gaztelaniazko azpitituluekin.

KATALUNIA-EUSKAL HERRIA

Martxoak 24, asteartea. 19:00. “Erabakitze eskubideari bidea ireki!”.
– Jaume Mareany (ANC).
– Angel Oiartzabide.
– Martxelo Otamendi.

Zumeatarra elkartean solasaldia martxoaren 17an, 18:00etan

Elikadura, gaixotasunak saihesteko neurri onena

Martxoak 31 Koloneko minbiziaren aurkako nazioarteko eguna da eta horren harira, datorren asteartean, solasaldia antolatu dute Zumeatarra elkartean. Maider Sierra psiko onkologoak azaldu duenez, zalantzak argitzeko espazioak sortu nahi dituzte: “Askotan ikusi dugu jendeak zalantza ugari dituela minbiziaren inguruan, baina medikuari galdetzen ez direla ausartzen”.

Solasaldian, batetik, onkologia arloko Paula Toral ikerlariak alde teorikoa azalduko du, bizi ohiturek minbiziari sortzen eta garatzen laguntzen diotela ikusteko. Gaixotasunari aurre egiteko zein elikadura mota hartu beharko genituzkeen azalduko du. Horregatik, bestetik, **Ruben Trincado** sukaldariaren esku egongo da elikadura osasuntsuaren inguruko aholkuak ematea. “Elikadura osasuntsua entzutean, askok elikadura aspergarri batean pentsatzen dugu. Ruben gurekin izatea ohore bat da, berak janaria presatzeko modu berritzaileak erakutsiko dituelako”, dio Maiderrek. Momentuan erakutsiko du nola egin, errezetak emango ditu eta degustazio txiki bat ere egongo da.

“Koloneko minbizia oso ohikoa da, baina ez da entzuten”, azaldu du. Bularreko edo prostatako minbiziak entzunagoak



Maider Sierra.

izanagatik ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, bi sexuak kontuan hartuta gehien pairatzen den minbizia da kolonekoa, “Solasaldietara etortzea oso garrantzitsua da, beti zalantzak izaten ditugulako. Gure nahia jendeak parte hartzea da, herri-tarren eta hizlarien arteko solasaldi aberasgarria izatea”.

“Koloneko minbizia oso ohikoa da, baina ez da entzuten”

Maider Sierra pozik agertu da orain arteko saioetan jendeak izan duen parte hartzearekin. Emankorrak izan direla dio; Andoainerako ere izen ematea itxi egin dute, leku guztiak bete egin direlako. “Izugarrizko harrera ona izan du. 50 lagunek eman dute izena jada. Dena den, informazioa ahoz aho zabaltzea eta jende gehiagorengana iristea espero dugu.”

Minbiziaren Aurkako Elkar-tea, laguntza emateko prest dago: “andoaindarren batek laguntza beharko balu, bai gaixo bezala edo bestela, prest gaude laguntza psikologikoa edo teknikoa eskaintzeko”.

Informazioa: www.aecc.es



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Musika eskolako abesbatza Zuberoan



Abesbatza gazteko hainbat kide Katrin Iturralde zuzendariarekin.

Saioko bideoak: www.aiurri.com.

Andoaingo Udal musika eskolako abesbatza gazteak Zuberoako Goteinen emanaldia eskainiko du larunbat honetan. “Chateau de Libarrenx” gazteluan saioa eskaini ondoren asteburua igaroko dute inguru haietan, biharamunean Mauleko Maskarada bertatik bertara ikusteko. Bidaia-aren gastuak finantziatu ahal

izateko, aurreko astean emanaldi berezia eskaini zuten Basteron. Kontzertu hartan estilo oso ezberdinetako kantutak eskaini zituzten; “Grease” filmaren kantua edota Zea Mays taldearen “Negua joan da ta”.

Abesbatza gaztea 13 eta 17 urte bitarteko gazteez osaturik dago.

Urki dantza taldeko kideak San Juan bataiatzailean



Saioko bideoa ikusgai dago www.aiurri.com webgunean.

Urki dantza taldeko dantzari txikiek urteko lehen emanaldia eskaini zuten San Juan

Bautista bataiatzailea adinekoen egoitzan. Bertakoek goz hartu zuten ekimena.

Zuhaitz landaketa Sorabillan



Eguraldi ederrarekin aritu ziren auzolanean.

Larunbat goizean Sorabilla auzoan auzokideek eta bereziki Sorabillako harrera etxe-

an bizi diren gazteak aurreko urteetan landatutako zuhaitzak txukuntzen aritu ziren.

Karlos Garciaren aldeko bilkura Goikoplazan



Ostiral arratsaldean agerraldi jendetsua egin zuten Goikoplazan.

Karlos Garcia otsailaren amaieratik Erroman dago espetxeratua. Haren etxekoek eta lagunek agerraldiak egin dituzte Erroman eta Andoainen. Goikoplazan aurreko ostiralean agerraldi jendetsua egin zuten. Batetik, Karlosi eta senideei elkartasuna adierazteko. Eta bestetik, afera-aren inguruko hausnarketa plazaratzeko. Andoaingo manifestua irakurri zutenentzat, Karlosen atxiloteta “aldeabakarreko eraso errepresiboa” izan da. Atxiloteta estatu espainiarraren jarrera ulertezi-naren ondorio dela diote.

2000. urtean epaitu zuten eta ordukoa muntaia poliziala izan zela salatu dute, “Andoaingo Lankide Aurrezki Kutxaren aurkako erasoan lekuko batek ibilerengatik Karlos Garcia erasotzaileetako izan zitekeela adierazi zuen. Proba eskas horiek nahiko izan ziren Garcia zigortzeko. Zigorretik ihesi, andoaindarrak bizimodu berria egin zuen Erroman. Bertan familia osatzeraino”. Atxilotu zutenetik Erroman preso daukate, eta bere etorkizuna zein izango den ez dago oraindik batere garbi.

Epaiketa aste honetan burutu da Madrilen



Aurreko ostiral arratsaldean bilkura egin zuten, espetxeratuen alde.

Iñaki Igerategi eta Tintto Otaño presoak aste honetan epaitu zituzte Madrilen. Hiru urte dira atxilotu eta espetxeratu zituztenetik.

Bien bitartean, Ikastolako guraso talde batek hilean behin bi espetxeratuen eta etxekoek aldeko agerraldiak egiten darrai.

Nafarroa hegoaldeko olioaren erosteko aukera

Nafarroa hegoaldeko oliba olio birjina estra jatorrizko prezioan erosteko aukera dago Andoainen, Errigora ekimenarekin bat eginez. Kale Nagusiko Agro dendan egin daiteke eskaera, eta baita Zumea plazan larunbat honetan ipiniko duten postuan ere.



“Errepresio frankista Andoainen” hitzaldia ostiral honetan

Belabieta kolektiboaren erakusketa eta hitzaldia

Errepublika eta errepresio frankista lantzen duen erakusketa ikusgai dago aste honetan, komunisten tabernan. Oroimen historikoa lantzen duen Belabieta kolektiboa da bere antolatzailea.

Astartearen hasi eta ostirala bitarte, 18:30etik 20:30era, irekiko ditu ateak erakusketak. Jardunaldiari amaiera emateko, berriz, ostiralean “Errepresio frankista Andoainen” izenburu duen hitzaldia eskainiko du Oroituz elkarteko kide batek.

Alberto Rodriguez eta Jorge Mourinho antolatzaileek azaldu dutenez, hiru ataletan banatzen da erakusketa: “aurrenekoan, Errepublika garaian argitaratzen ziren zenbait egunkari (ABC, Euzkadi, El Diario Vasco...) eta horiek lehen orrialdeetara eraman zituzten izenburu deigarriak biltzen dira. Bigarren zatian, garai historiko berean kalera-tzen ziren tebeo eta komikiak



Jorge Mourinho, Francisco Mercado eta Alberto Rodriguez antolatzaileak.

ikus daitezke. Azkenik, Andoaingo herritarrek osatzen dute hirugarren atala: errepresio frankista zuzenki pairatu zuten herritarren argazkiak, euren izen abizenekin”.

Mourinhok azaldu duenez: “Iruditzen zaigu, egun, balio errepublikanoek inoiz baino gaurkotasan handiagoa dutela, eta horiek eskuan ditugun baliabideekin aldarrikatu behar

direla, gizarte justuago baten alde”.

Komunisten taberna Pio Baroja 5 kalean dago; orain 26 urte ireki zen, eta Faustina Granados da bere arduraduna aspaldiko urtetan. Bertan, halaber, PCE-EPK eta Ezker Anitza alderdi politikoen eta Belabieta eta Gazte Komunistak kolektiboen egoitzak kokatzen dira.

Maider Lainez alkategai, eta haren atzetik kide berriak

PSE-EEko zerrendakideak



Sozialisten egoitzaren parean bildu ziren Udal hautagaiak.

Azken agintaldi honetan oposizio buru egiten ari den Maider Lainez izango da sozialisten alkategaia. Gertu izango ditu kide berriak, Alvaro Gonzalez gaztea eta Ascension Parron Gehitu elkarteko lehendakaria. Zerrendan aurrera jarraituz udalgintzan esperientzia duten hiru kide agertzen dira: Daniel Garcia sozialisten idazkaria, Petri Romero Batzar

Nagusietarako zerrendan ere doana eta Toñy Landa zinegotzia. Sozialistek hauteskundeak irabaztea helburu dute. Estanis Amutxastegik itxiko du hautagaien zerrenda.

Zerrendakideak:

1. Maider Lainez Lazcoz.
2. Alvaro Gonzalez Cossio.
3. Ascension Parron Peguero.
4. Daniel Garcia De La Calle.
5. Petri Romero Pozo.

6. Toñy Landa Ayerbe.
7. Oscar Mendo Gonzalez.
8. J.Francisco Muñoz Muñoz.
9. Raquel Caballero Madrid.
10. Robinson Rafael Ariza.
11. María Angeles Exposito.
12. Oscar Garcia De La Calle.
13. Almudena Lamaza Vadillo.
14. Eduardo Pelaez Castro.
15. Luisa Fuentes Marquez.
16. Marino Rodriguez Alcon.
17. Estanis Amutxastegi.



KIROL ALBISTEAK

Euskal Herriko txapeldunak

URNIETA 40
FUNDACION REMONTE A 23

Euskal Herriko txapelketa, finala. Ander Goikoetxea-Ibai Martiarena. Senior maila. Galarretan jokatu zen finalean nagusitasun handia erakutsi zuten biek. Ibai atzean jaun eta jabe aritu zen, maisutasun handia erakutsiz. Horri esker, tantoak bukatzeko alai aritu zen Ander.

Iaz Goikoetxea txapeldunorde izan zen, eta aurten egoitu zaio txapela janztea. 2013an 22 urte azpiko finalean nagusi izan zen bikoteak balentria berdina lortu du, baina oraingoan senior mailan. Zorionak!



UDABERRI TXAPELKETA

Kadete mailan Elgarresta eta Aldunberri eskuz binakako fi-

nala jokatzeko sailkatu dira. Pala motzeko finalera iritsi dira Argiñarena eta Txapartegi.

Gaztazaleak Mirandara

Jon Gaztañaga Andoaingo futbolaria Ponferradina taldean utzita jokatzeko ari da denboraldi amaiera arte, eta Gaztazaleak taldeak bera eta bere taldea animatzeko irteera antolatu du igande honetarako, Burgoseko probintzian eta Gasteiztik gertu dagoen Mi-

randa de Ebrora. Zehazki, Mirandes-Ponferradina bigarren mailako partida ikusteko plana egin dute. Hauxe da egitaraua: 10:00 Bus irteera Makaldegitik. 16:00 Mirandes-Ponferradina partida ikusi. 21:00 Andoainera itzulera.



Igeriketa lehia Allurralden


Pasa den larunbatean **Buruntzaldea IKT** taldeko infantil, junior eta senior mailakoak Udaberriko ligako lehen jardunaldian aritu ziren, etxean bertan. Allurralde kiroldegian hain zuzen. Taldeko arduradunek adierazi bezala, taldeko 25 gazte lehiari aritu ziren. Baita ondo aritu ere, "gure taldekideak benetan txukun aritu ziren jardunaldi osoan zehar. Gure gazteek 26 marka pertsonal hobetzea lortu zuten, nahiz eta egutegian txapelketa garrantzia handiko frogaz ez izan". Batzuk nabarmen-tzearren, 1500 libre proban **Jone Vazquez** taldekidea nagusi izan zen, 200 bular proban **Haitz Mitxelena** eta **Mikel Soto** bigarren eta bosgarren sailkatu ziren. 50 bizkar proban **Itsaso Tolosa** nagusitu zen eta 100 estiloetan **Mikel Esnalek** garaipena lortu zuen, bere marka onena hobetuz.



Andoaingoei dagokienez, emaitza onenak Esnalek lortu zituen. Nagusi izan zen parte hartu zuen bi probatan: 100 librean eta 100 estiloetan. Andoaindik **Unai Irigoras**, **Xabier Alonso**, **Daniel Herranz**, **Jon del Rio**, **Ane Otegi** eta **Ibane Otaegi** ere aritu ziren, denek ere etxean igeri egiteaz gozatuz.

Etengabeko hobekuntzaren adierazle, **Xabier Alonso** andoaindar gazteak asteburu honetan Tolosan ospatuko den Gipuzkoako Neguko Txapelketan parte hartzeko txartela lortu du. **Unai Irigorasek** bere aldetik Udako txapelketarako gutxieneko marka lortu du dagoeneko.

Mikel Iturriaren garaipen ikusgarria Aiztondon



Mikel Iturria podiumean.

Euskadi fundazioko Mikel Iturria urnietarrak sekulako garaipena lortu zuen Aiztondo klasikan, zeinean gerora profesional mailara igo diren txirrindulariek irabazi izan duten. Taldeko jokabideari eutsiz, Mikel Aristik eta Mikel Iturriak sekulako erakustaldia egin zuten azken hamar kilometroetan distantzia hartu eta helmugara lehen postuan iritsiz. Profesional mailan aritu eta gero, garaipen polita urnietarrarentzat. Zorionak!

Anoetako 4 orduak

Martxoan 21ean Donostiako belodromoan ospatuko dira Anoetako 4 orduak eta sarre-rak Andoaingo Txirrindulari Eskolaren bidez eska litezke.

Sarrerak salgai Andoainen:

Webgunean sartuta (andoain-go.com/sarrerak.html) edo email bidez (info@andoain-go.com).

Urnietako eskubaloia

URNIETA 21-21 EREINTZA

Senior neskak. Berdinketa garrantzitsua. Lehenengo zatian norgehiagoka maldan gora jarri zitzaizen urnietarrei, eraso azkarregiak min ematen baitzien. Bigarren zatian huts horiek hobetu eta Oihane Sanchez atezainak egindako geldiketari esker Urnietarrek berdinketari eutsi zioten.

URNIETA 25-27 EIBAR

Senior mutilak. Lehenengo zati berdindu baten ondoren (12-12) norgehiagoka bigarren zatian erabaki zen, eta xehetasun txikiei esker. Eskarmentua aurkariak hobeto baliatu zuen. Eta ezin alde batera utzi aurkariaren jokabide itsusia, eta itsusikeri horiek gerarazteko epaileen inplikazio falta.

Euskalduna lehen postuan

Aurreko jardunaldia:
Ontzerri 2-1 Urola
Ikasberri 1-1 Euskalduna
Asteburuko partidak:
Ontzerri [atseden]
Euskalduna-Danena

Lehen Erregionala, Kopa Sailkapena, futbola:
1. Euskalduna 14
2. Segura 13
3. Ikasberri 12
4. Ontzerri 10

Urnietak eta Andoain goi goian

Aurreko jardunaldia:
Baskonia 3-1 Euskalduna
Urnietak 2-3 Dunboa
Asteburuko partidak:
Euskalduna-Lengokoak
Sanpedrotarra-Urnietak

Preferente maila Sailkapena, futbola:
1. Orioko 54
2. Euskalduna 49
3. Urnietak 45
4. Baskonia 44

Andoaingo areto txapelketa

Asteburuko emaitzak:
Bar Txalaka 6-3 Galpasitx
Centro Extremeño 2-3 Ekhi
Aure Maiton 1-6 Keler

Sailkapena:
1. Keler 16
2. Centro Extremeño 11
3. Ekhi 8

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa

arduraduna:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnieteta).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

MARTXOAREN 13TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **“Jostunak”.**
Dokumentala euskaraz, azpitituluekin. Gure Esku Dago taldeak antolatuta. 18:30.
Martxoak 13, ostirala.
- **“Samba”.**
19:30, 22:00.
Martxoak 14, larunbata. 19:30.
Martxoak 15, igandea. 19:30, 22:00.
Martxoak 16, astelehena.
- Haurrentzat:
“Bob Sponja”.
Martxoak 21 eta 22. 17:00.

Urnieteta

- **“Pinguinos de Madagascar”.**
16:00, 18:30. Sarobe.
Martxoak 15, igandea.
- **“Stand by me: Doraemon”.**
16:00, 18:30. Sarobe.
Martxoak 22, igandea.
- **“El ejercito secreto de la OTAN”.**
Gazte Asanbladaren eskutik. 18:00. Lekaio.
Martxoak 15, igandea.

Ikuskizuna

Urnieteta, Sarobe

- **“Epa”**, Demode quartet.
Martxoak 13, ostirala. 21:30.

Andoain, Bastero

- **“Verne txikia”** haur ikuskizuna.
Martxoak 15, igandea. 17:00.

Tailerrak

Urnieteta

- Dantza tailer berritzailea. 10:00-14:00. Sarobe.
Martxoak 14, larunbata.
- Sukaldari txinatarrak. Gazte Asanbladaren eskutik. Izen-ematea: Ikasmin. 18:00-21:00. Eteneta.
Martxoak 14, larunbata.
- Tai Chi saioak. Gazte Asanbladaren eskutik. 10:30-11:30. Ludoteka.
Igandero. Doan.

Martxoak 8

Andoain

- **Erakusketa:** “Andoaingo kaleak denontzat berdin (=)”. Azken eguna:
Martxoak 13, ostirala.
- **Antzerkia:** “A vueltas con la vida”. Beatriz Carvajal. 21:30. Bastero. 15 euro.
Martxoak 13, ostirala.

Antzerkia

Urnieteta

- **“Epa”** ikuskizuna Demode taldearen eskutik. Sarrera gonbidapen bidez, Saroben bertan eskuragarri. 21:30. Sarobe.
Martxoak 13, ostirala.
- **“Euli giro”**, aurre estreinaldia. Ainhoa Casina, Miren Gaztañaga, Erika Olaizola. 19:00. Sarobe. 4 euro.
Martxoak 21, larunbata.

Hitzaldiak

Urnieteta

- **Xabier Lete** hizpide: Felipe Juaristi, Inazio Mujika, Jon Sarasua. 19:30. Lekaio.
Martxoak 23, astelehena.
- **“Viajes con Rocinante”** Isabel Suppe idazlea eta bi-daiaria. 19:00. Sarobe.
Martxoak 25, asteazkena.

Andoain

- **“Komunikabideak eta bizikidetza”:** Olatz Iartza, Gorka Landaburu, Pablo Muñoz, Luis R. Aizpeolea eta Martxelot Otamendi. 19:00. Urigain.
Martxoak 12, osteguna.
- **“Katalunia-Euskal Herria: Erabakitze eskubideari bidea ireki!”:** Jaume Mareany (ANC), Angel Oiarbide (Gure Esku Dago) eta Martxelot Otamendi moderatzaile lanetan. Gure Esku Dago taldeak antolatuta. 19:00. Bastero.
Martxoak 24, asteartea.

Korrika 19

Andoain, Urnieteta

- **Tolosaldetik Hernani** aldera: 09:01 Aduna. 09:14 Andoain. 09:53 Urnieteta. 10:19 Hernani.
Martxoak 21, larunbata.

Urnieteta

- **Korrika txikia:** Egape, Salesiarrak eta Presentacion de Maria ikastetxeak elkarrekin. 17:00 Ibilbidea: Egape ikastolatik Presentacion de Maria ikastetxera, eta San Juan plazatik Salesiarretara. Martxoak 17, asteazkena.

Ospakizuna

Urnieteta

- Urnietako mendi lasterketaren bezperan, haurrei eskainitako jarduera ugari Super H elkartearen alde: lehen lasterketa txikia, Porrrotx pailazoa, tailerrak, txokolatea jatea, puzgarriak. 17:30. San Juan plaza.
Martxoak 28, larunbata.

Irteera

Urnieteta

- Denda Berrirekin Santo Domingo de la Calzadara. Informazioa elkartearen bertan. Martxoak 21, larunbata.

Aisialdia

Urnieteta

- Aste Santu aurreko hiru egunetan eta Pazko astean tailerrak, jolasak eta irteerak. Informazioa: Udaletxea.

Batzarra

Andoain, Urigain

- EH Bilduren Batzarra: Udal Hauteskundeak, Udal Programaren aurkezpena. 11:00.
Martxoak 14, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Miren Ibañez Donosok 22 urte beteko ditu martxoaren 12an. Zorionak eta ondo pasa etxeko-en partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Martxoaren 17an gure pirata **Kime**-tzek 8 urte beteko ditu. Zorionak Kimetz. Asko maite zaitugu. Etxekoak.

URNIETA

ZORIONAK



Martxoaren 13an etxeko sorgintxoak 3 urte beteko ditu. Zorionak asko maite zaitugu. Etxekoak.

URNIETA

ZORIONAK



Martxoaren 19an Greziako ume politenak urte bat beteko du. Ondo pasa **Iker!** Amatoxoren koadrila.

ANDOAIN


BETI ARTE



Guran zaude **Lur** maitea. Goiburu aldeko ibilerak, Zumea ingurukoak, mendi eta itsasoak... zenbat oroitza!

ANDOAIN

ZORIONAK



Martxoaren 15ean lehenengo urtea beteko du etxeko mutil jatorrak. Zorionak **Negu!** Korrikalari bikaina datorkie gurasoei, testigu eske!

URNIETA

ZORIONAK



Martxoaren 20an 4 urte beteko ditugure neska polit bati. Zorionak **Euri!** Esan gurasoei animatzeko, eta pijama festa hori antolatuzke!

URNIETA


ZORIONAK



Martxoaren 13an, **Iratiki** 6 urte beteko ditu. Etxeko guztiek opariak prest daukagu, eta muxu pila ere bai. Ondo pasa zure eguna, maitia.

ANDOAIN

ZORIONAK



Eneko martxoaren 15ean eta **Katalin** 21ean 4 urte beteko dituzte. Muxu potoloak. Etxekoak.

ANDOAIN

AGURRAK
619 163 537.



Demode quartet Saroben

Musika eta antzerkia umorez beterik, esperientzia handiko lau artisten eskutik. Tartean, David Rosco.

“Epa” ikuskizuna: Eitb-rako grabazio berezia. 21:30. Sarobe.
Martxoak 13, ostirala.



Hassanna Aalia Basteron

Basteron hitzaldia eskaini zuen Hassanna Aalia saharar ekintzaileak, zeinak asilo po-

litikoa eskatu duen. Egun hauetan Marokora bidaltzeko arriskupean bizi da.